







Energiaren kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin abenduan kontsumitutako elektrizitatea %0,6 igo da aurreko urtekoarekin alderatuz gero eta urteko metatuari dagokionez %2,2 murriztu da. Industriak %1,7 egin du behera 2018ko abenduarekin alderatuz eta urteko metatua %2,5 baxuagoa izan da. Eraikinen sektoreak berriz, %4,6 egin du gora, baina urteko metatua %2,2 murriztu da.

Etxebizitzaren sektorean eta zerbitzuetan, elektrizitate kontsumoak %4,8 eta %4,4 egin dute gora aurreko urteko abenduarekin alderatuz, baina urteko metatuak %3,6 eta %1,2 egin dute behera.

Siderurgia sektorearen kontsumoak %3 egin du behera eta urteko metatua %2,8 murriztu da. 2019ko abenduan, ibilgailuen sorkuntza sektoreak %21 egin du gora eta obra publikoak %17. Automobilaren eraikuntza eta egur eta kortxo sektoreek, berriz, behera egin dute, %12,8 eta %4,8, hurrenez hurren.

Gas naturala







Abenduko gas naturalaren guztizko kontsumoak %11,5 egin du gora aurreko urteko abenduarekin alderatzen bada, eta urteko metatua %20,5 handiagoa izan da. Zentral termikoen kontsumoari dagokionez, 2018ko abendukoa baino %63,6 handiagoa izan da, gainerako sektoreek ere gora egin dutelarik (%0,8).

Erregaiak garraioan

2019ko azaroan, EAEn, garraioen erregaien kontsumoa %1,6 igo zen aurreko urtekoarekin alderatuz, baina urteko metatuak behera egin du %1,2.

Epe berean, A gasolioaren kontsumoak %0,8ko igoera izan du eta gasolinek aldiz, %9,1.

Iturriak: EEEn lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



Nazioarteko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

2019ko abenduan, munduko petrolioaren kontsumoa egunean ia 102 milioi kupelekoa izan zen, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz %1,6 handiagoa.

Epe berean, Txinak %3,5 hazi zuen bere kontsumoa 15,2 Mbpd arte eta Europar Batasunak %2,2, 14,7 Mbpd. AEBek %0,5 murriztu zuen bere kontsumoa, 20,2 Mbpd kontsumituz.







Munduan, 2019ko hileroko batez besteko kontsumoak 100,8 Mbpd izan da.

Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2019ko urrian, 140 bcm (milaka milioi m³) inguru kontsumitu ziren. Kontsumo hau aurreko urtekoarekin alderatuz %5,2 handiagoa izan zen. 2019ko hileroko batez besteko kontsumoa ia 150 bcm izan zen.

OCDEko zonalde geografikoen arabera, aurreko urteko urriarekin erkatuta; Amerikan %7,1 eta Europan %4,1 igo zen gas naturalaren kontsumoa, Asia-Ozeanian aldiz %0,4 murriztu zen. Urteko kontsumo metatuari dagokionez, Amerikan %3 Europan %2,9 eta Asia-Ozeanian %3,4 hazi ziren, besteak beste.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



Energiaren kontsumoa Espainian

Energia elektrikoa
Espainian elektrizitatearen kontsumoak 2018ko abenduan baino %1,4 txikiagoa izan zen eta urteko metatua %1,7 baxuagoa.






Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2019ko abenduan berriztagarrien partaidetza %53ra iritsi da, sorkuntza eolikoak %25a asetu duelarik. Gainerako sorkuntza, erregai fosilen (%26) eta nuklearraren (%20) bitartez asetu da.

Gas naturala
2019ko abenduan, Espainian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %2,1 egin du gora, 2018koarekin konparatuta. Zentral termikoen kontsumoa %2,1 egin du behera aurreko urteko abenduarekin alderatuz, baina urteko metatua, 2018koa baino %80 handiagoa izan da. Gainerako kontsumoak %1,6 igo ziren aurreko urtearekiko, eta urteko metatua %15 altuagoa izan zen.

Erregaiak garraioan
Espainian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera izan du 2014. urteaz geroztik. Azaroan kontsumoak %0,2 egin zuen gora aurreko urteko hilabetearekin alderatuz eta urteko metatuak berriz %0,8.

Erregai motaren arabera 2019ko azaroan, gasolina kontsumoak %4,4 egin du gora aurreko urteko hilabetearekin alderatuz eta A gasolioak, berriz, %0,7 jaitsi da.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa
Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 65,8\$ (59,2€) izan zen abenduan. 2019 urteko batazbesteko petroliaren prezioa 57,2€koa izan zen.

Elektrizitatearen prezioa
Espainian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 33,7 €/MWh izan zen abenduan, aurreko urtearekin alderatuz %16,7 baxuagoa. Urteko batazbesteko prezioa 47,7€koa izan da.







Gas naturalaren prezioa
Holandako TTF delakoa, erreferentziakoa batez besteko prezioa europar merkatuan, 13,1€/MWh izan zen abenduan; Espainiako MIBGASena 12 €/MWh-koa izan zen eta Alemaniako EGIX M+1arena 16€/MWh.

Nazioarteko merkatuetan, abenduan, Henry Hub deritzona, 7,6 €/MWh-ra iritsi zen, eta prezioa Japonian 20,6 €/MWh-ra igo zen.

Erregaien prezioa
2019ko abenduko gasolioaren prezioa 1,26€/l izan zen Euskadin eta gasolinarena, berriz, 1,34 €/l-tan mantendu zen.

CO₂-aren prezioa
CO₂-aren europar baimenak 24,3 €/t-ko balioa lortu zuen abenduan.

Iturriak: EIA, OMIE, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espainia

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

2019ko urrian, energia berriztagarrien parte hartzea %31koa izan da, energia eolikoarena %18koa izan delarik. Gainontzeko sorkuntza, energia nuklearrak (%21) eta erregai fosilek (%48) osatzen dute. Azken honetan, ikatzaren adierazgarritasuna %4koa izan da urrian.

Frantzia

2019ko sorkuntza elektrikoak Frantzian, aurreko urteko egitura mantentzen du; funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%70), erregai fosilek %9a asetu dute eta berriztagarrien ekarpena %21koa izan da urrian.

Alemania

Alemanian, elektrizitate sorkuntzan, berriztagarrien ekarpena %41koa izan da urrian, erregai fosilen bidezko sorkuntza %46koa eta nuklearraren partaidetza %13koa.

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da ikatzaren partaidetza urrian %29 izan zela eta maila apalagoan bada ere, gas naturalarena %15.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.